



**ELGOIBARKO  
LEGEALDIKO  
PLANAREN ILDO  
NAGUSIAK:**

**3 MINUTU  
ULERTZEKO**



## HELBURUA

Datozen urteotan, udalerrian izango diren proiektu traktoreak identifikatzea, eta herria etorkizunerako prestatzea.

## ABIAPUNTUA: DIAGNOSIA

Udalerrriaren indar-guneak, ahuleziak, gaitasunak eta berezitasunak zeintzuk diren jakitea

## IDEIA: INDARRA

Elgoibartarrak, Planaren muin eta ardatz-eragile baitira.

## JOMUGA

2011

## METODOA

Ondoren zehaztuko diren erronkak direla-eta, udalerriko politikagintzan sartuta dauden eragileen hausnarketa eta partaidetza lortzea.

- Gizarte arloko erronka
- Ekonomia arloko erronka
- Aisialdi eta kultura arloko erronka

Honako galdera hauek erantzuteko ahalegina eginez:

- Non gaude?
- Norantz joan nahi dugu?
- Nola iritsiko gara nahi dugun tokira?

## LANERAKO ERA BERRIA

Udalean lanerako metodologia berri bati ekingo zaio. Horri esker, informazioa areagotu egingo da antolakuntza guztian, halaber, helburuak, ekintzak eta aurrekontuko partidak bateratuagoak izango dira.





## **ELGOIBAR, PERTSONEI EMANDAKO ARRETAREN EREDU**

Eskualde mailako zentro balioaniztun bat sortzeko planteamendua egin da, adineko pertsonen beharrianetara egokituko dena, eta pertsona horiekin elkarlanean, zahartze aktiborako programa bat bideratzeko aukera emango duena.

Horretaz gain, honako proiektu hauek ere bultzatuko dira: berdintasunerako proiektuak, lana eta familiaren arteko kontziliazioa sustatzeko proiektuak, aisialdi osasuntsurako eta gazteen partaidetzarako proiektuak, pertsona etorri berriei harrera egin eta arreta eskaintzeko proiektuak, eta baztertze egoeran bizi diren pertsonen kohesio eta gizarteratze proiektuak.

## **ELGOIBAR, MAKINA-ERREMINTAREN ETA PRESTAKUNTZAREN HIRIBURUA**

Gune berriak sortzeko planteamendua egin da, betiere, helburu hauek gogoan izanik: enpresa jarduera berriak bideratzea, industria sarea hazi eta garatzeko baldintzak hobetzea, oinarri ekonomikoa dibertsifikatzea, nahiz hezkuntza arloko eskaintza hobetzea eta eskaria sustatzea.

## **ELGOIBAR, BIZI IZATEKO ETA BISITATZEKO HERRI ERAKARGARRIA**

Bizi izateko egokiagoak izango diren hirigunea eta auzoak sortzeko asmoa dago, merkataritza eta zerbitzuen arloko eskaintza hobea, barneko eta kanpoko irisgarritasun hobea, etxebizitza eskaintza handiagoa, kirolerako eta kulturarako ekipamendu gehiago, gu bisitatzera datozenentzako eskaintza handiagoa, eta ingurumenarekiko konpromiso handiagoa izango duten herritarrak lortzeko.


## **ELGOIBAR, KALITATEZKO GESTIOA EGITEN DUEN ETA GIZARTEAREKIKO ARDURA DUEN UDALA**

Hainbat proiektu bideratuko dira, herritarrei arreta egiteko eta herritarren partehartzea bultzatzeko; udalaren gestioa hobetzeko zein euskara eta udalaren gizarte erantzukizuna sustatzeko.





## ARDATZ ESTRATEGIKO NAGUSIAK





## JARDUERA ILDOAK, PROIEKTUAK, HELBURUAK ETA 2007-2011 LEGEALDIA BIDERATUKO DIREN EKINTZA ZEHATZEN DEFINIZIOAK

### ELGOIBAR, PERTSONEI EMANDAKO ARRETAREN EREDU

#### 1. proiektua: **Mendekotasunari arreta egitea eta aurrea hartzea**

- Eskualde mailako zentro balioaniztuna.
- Zahartze aktiborako programak abian jartzea.
- Baserri auzoetan, mendekotasunari arreta egiteko eta aurrea hartzeko ekimenak abian jarri eta bultzatzea.

#### 2. proiektua: **Kontziliazioa sustatzea**

- Hautzaindegien zerbitzua beharrizantara egokitzea.
- IHOBEn bultzatutako programa, Agenda 21 delakoaren gizarte ikuspegia sakontzeko helburua duena.
- GFAk sustatutako programa, gatazkak antzeman eta bideratu ahal izateko.
- Gizarte zerbitzuen arloko ekimen ekintzaileak sustatzea, eskatutako zerbitzuetan dauden hutsuneei erantzun ahal izateko.

#### 3. proiektua: **Aisialdi osasuntsua eta gazteen partaidetza**

- Drogamenpekotasunei aurre egiteko kontzientziatze kanpainak.
- Eskola arloko ekimenak, jarrera egokiak bultzatu ahal izateko
- Udalak aisialdirako dituen baliabideen erabilera sustatzea.

#### 4. proiektua: **Pertsona etorri berriei harrera egin eta arreta eskaintzea**

- Harrera-gida eleanitza egitea.
- Etorri berrien taldea osatzen dutenen diagnostika egitea
- Gizarte Zerbitzuen arloko teknikari bat jartzea, etorri berriei arreta eskaintzeko.

#### 5. proiektua: **Bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarte-kohesioa eta gizarteratzea**

- Udalaren zerbitzu eta eskaintzei buruzko katalogoa egitea eta argitaratzea.
- Baztertutako taldeetako partaide diren emakumeen beharizanak antzematea eta aztertzea.
- Lanbide-orientazioa.
- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio programak sustatzea.





## ELGOIBAR, MAKINA-ERREMINTAREN ETA PRESTAKUNTZAREN HIRIBURUA

### 6. proiektua: **Makina-erremintaren hiriburua**

- Udalaren eta tokiko eragileen artean mahai sektorial bat sortzea; industriaren eta lanbide heziketaren arloan, udalaren politikagintza dinamizatzeko.
- Herritarren artean, gure industria-sareari, bere jarduerari eta lanbide-heziketari buruzko ezagutza eta sentsibilizazioa sakontzea.
- Industria-lurzoruaren arloko beharrianak ebaluatzea, definitzea eta horren arloko sentsibilizazioa lantzea.
- Zerbitzuak eta azpiegiturak planifikatzea, jarduera ekonomikoetara egokitu ahal izan daitezen.
- Ezagutza eta berrikuntza transmitituko dituzten proiektuei zein tokiko industriaren gestioa optimizatuko duten proiektuei bide ematea.

### 7. proiektua: **Elgoibar berritzen**

- Ekimen eta jarrera ekintzaileak bultzatu eta laguntzea.
- Enpresa haztegi baten bideragarritasuna aztertzea.
- Kanpoko gazteak gure herrian geratzeko laguntza eskaintzea.
- Mugikortasun iraunkorra lortzeko ekintzen planifikazioari heltzea.
- Errolda bat egitea, herriko jarduera ekonomikoak jasotzeko, eta erakundearen eskumenekoak izan daitezkeen beharrianen berri emateko.
- Herriko baserrietako produktuak balioesteko laguntza ematea.
- Hiriaren eta landa-ingurunearen arteko loturak sustatzea.
- Nekazaritza-produkzioa merkaturatzeko programak bideratzea.

### 8. proiektua: **Prestakuntzaren hiria**

- Prestakuntza udalerrriaren ikur bilakatzea.
- Hainbat ekimen bultzatzea, Elgoibar, Lanbide Heziketaren eta Ingeniaritzaren eredu bilakatzeko.





## ELGOIBAR, BIZI IZATEKO ETA BISITATZEKO HERRI ERAKARGARRIA

### 9 proiektua: **Herri-gune erakargaria eta kalitatezkoa**

- Ibaiaren ingurua oinezkoen aisialdirako gune bihurtzea.
- Mugikortasunari buruzko azterketa eta plan integrala egitea.
- Aparkalekuen eta herriko haustura-guneen irisgarritasunaren arazoa konpontzen saiatzea. Herriaren erdialdean aisialdirako guneak jartzea, Plaza Txikiko eta geltokiko proiektuen bidez.
- Herrian, trenbidearen ondorioz sortu den haustura-gunea ezabatzea, segurtasuna bermatuko duten pasabide goratuen bidez.

### 10. proiektua: **Merkataritza gunea**

- Hiriko altzariak berritzea.
- Azoka Plazako bideragarritasun azterketa egitea.
- Azoka Plaza egiteko proiektua.
- Elgoibar marka; sustapen kanpainen bidez, merkataritza arloari laguntza ematea.
- Teknikari bat kontratatzea, merkataritza eta zerbitzuen sektoreari zuzendutako hainbat zerbitzu eskaintzea eta zerbitzuak dinamizatuko dituen ekintza plana egitea.

### 11. proiektua: **Ondarea eta atrakzio turistikoak balioestea**

- Paisaia-ondarearen eta ondare arkitektonikoaren inbentarioa egitea; ekintza plana zehaztea.
- Makina-Erremintaren museoa eta Fosilen eta Mineralen museoa bideratzea. Era berean, Mintxetako kirol eta aisialdi instalazioak abiapuntu gisa bultzatzea.

### 12. proiektua: **Barneko eta Kanpoko irisgarritasuna**

- Aparkalekuak (behin betikoak eta behin-behinekoak) gestionatzeko ekintza plana egitea.
- Auzoen eta N634 errepidearen arteko lotura optimizatzea. Trafikoa gestionatzea: sarrerak, irteerak.
- Mugikortasunari buruzko azterketa integralean zehaztutako ekintza plana betetzea.
- San Antolin – Arriagako geltokia, eskualdeko industria-gune nagusiaren beharrezko erantzuteko.
- Hiriburuetara joateko, garraio publikoaren zerbitzua areagotzea.





13. proiektua:

### **Etxebizitza lortzen laguntzea**

- Etxebizitza politika bideratuko duen teknikari bat jartzea.
- Legealdi honetan, 1.000.000 euroko partida jartzea edo jartzeko konpromisoa hartzea. Partida horren helburua izango da etxebizitza babestuak, batik bat, lehenengo etxebizitzak egiteko lurzorua erostea.
- Etxabeetan etxebizitzak egiteko udal ordenantza egitea.
- Zerga hobariak, oztopo arkitektonikoak ezabatzeke.
- Etxebizitza hutsak gestionatzea, alokairuko etxebizitza gisa erabiltzeko.

14. proiektua

### **Kirolaren eta kulturaren herria**

- Erdigunean estalitako gunen balioaniztunen bat sortzea.
- Mintxetan inbertsioak egiten jarraitzea, kirolerako eta aire zabaleko aisialdirako gunen baita.
- Bidegorri sarea egitea.
- Haurrentzako parkeak berritzea.
- Urruzunon, 13.000 metro koadroko parke bat egitea.
- Baliabide propioak erabiltzea, eta aldi berean, beste hainbat udalerritan bideratu dituzten jarduerak egokietzat baliatzea.

15. proiektua:

### **Herriko eta baserri auzoetako jarduerak.**

- Oinarrizko azpiegituretan (edateko ura, saneamendua, eta landa inguruko errepideak) inbertitzen jarraitzea. Azpiegiturek jarri eta mantentzea.
- Sallobente-Ermuaran bailara eta Mintxeta ingurua dinamizatzeko plan bat egitea. Planak hiru ardatz izango ditu: Kirola eta Aisialdia, Ondare Kulturala eta Historikoa eta Natura.
- Baserrien eta landa inguruko etxebizitzaren azpiegiturei, zerbitzuei... buruzko errolda amaitzea. Inbertsioak planifikatzea.
- Elkarerik ez duten bi baserri auzoetan, hau da, Aiastian (San Migel) eta Arriagan, elkarte bat egitea.
- Urasandi eta Sigmako irisgarritasuna hobetzea.
- Altzola: Saneamenduaren sarera lotzea, uholdeen aurkako plana egitea eta azpiegiturek egokitzea.





16. proiektua: **Ingurumenaren iraunkortasuna**

- Herritarrak sentsibilizatzea, hondakinak era egokian gestionatzeko.
- Birziklatzearen eta mugikortasunaren arloan, esperientzia pilotuei ekitea.
- Ekintza eta jarduera ekonomiko ekintzaileak bultzatzea, ingurumenaren iraunkortasuna lortzeko.
- Udalean, sentsibilitate ekologikoa eta ingurumenaren iraunkortasuna bultzatuko duten ekimenak bultzatzea.

**ELGOIBAR, UDAL ERAGINKORRAGO BATERANTZ**

17. proiektua: **Herritarren arreta eta partaidetza**

- Esperientzia pilotuak egitea, eta komunikazioa eta herritarren partaidetza gestionatuko dituen teknikari baten kontratazioa baloratzea.
- Web gunea egokitzea.
- Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, herritarrekiko arreta optimizatzea.

18. proiektua: **Udalaren gestio eraginkorra**

- Tramiteak eta administrazio-prozedurak optimizatzea, argitzea eta arintzea; prozeduren gestioa.
- Jarraipen eta ikuskapen prozesuak eta lanak optimizatzea.
- Ekimen eta jarrera ekintzaileak sustatzea.
- Babestutako etxebizitzak, batik bat, lehenengo etxebizitzak izango direnak egiteko, lurzoruaren udal gestioa bideratuko duen sozietate bat sortzea.

19. proiektua: **Euskararen erabilera**

- Ahozko ondarea eta idatzizkoa gestionatzea.
- Haur eta gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko plana.
- Azterketa toponimikoa.
- Egoera soziolinguistikoaren azterketa.





20. proiektua: **Berdintasun politikak bultzatzea**

- Berdintasun Zerbitzua sortzea.
- Langile teknikoak kontratatu eta batzorde informatzaile bat sortzea.
- Berdintasun plana idatzi, bultzatu eta eguneratzea.

**ELGOIBAR, UDAL EREDUGARRI BATERANTZ**

21. proiektua: **Udalaren gizarte-erantzukizuna**

- Famili bizitzaren, lan bizitzaren eta karguaren betekizunen arteko kontziliazioa.
- Zinegotziei eta alderdi politikoei baliabideak ematea.
- Erantzukizunen eta betetzen den karguaren araberako ordainketak.

22. proiektua: **Legealdiko planaren gestioa eta jarraipena bideratzeko baliabideak**

- Batzorde bat sortzea, Legealdiko Planaren jarraipena egiteko.
- Planean sartuta dauden sailtako teknikariak inplikatzeko.
- Legealdiko Plana bideratzen eta betetzen lagunduko duten konpromisoak hartzea.
- Jarraipen batzordeari izaera betearazlea ematea.

